



TEKNIKARIOK

**EAE-KO IKUSKIZUN ETA EKITALDIETAKO
LANGILEEN EGOERA**

**2020KO
ABENDUA**

AURKIBIDEA

SARRERA	02
METODOLOGIA	02
PROFESIOAREN DESKRIBAPENA	03
GENEROAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA	03
ADINAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA	04
JARDUERAREN BEHIN-BEHINEKOTASUNA	05
PROFESIOAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA	06
KONTRATAZIOAK ENPLEGATZAILE EDO BEZEROAREN ARABERA	07
KONTRATAZIO ERREGIMENA	08
BESTEREN KONTURAKO KONTRATAZIOAREN DESKRIBAPENA	11
2019 ETA 2020KO EGOEREN KONPARAZIOA	12
2019-2020KO JARDUERA PORTZENTAIA ETAN	12
2019 ETA 2020KO DIRU-SARREREN JATORRIA	13
PANDEMIAREN ERAGINA BESTEREN KONTURAKO LANGILEEN DIRU-SARRERETAN	14
PANDEMIAREN ERAGINA NORBERAREN KONTURAKO LANGILEEN DIRU-SARRERETAN	16
2019-2020KO KONTRATAZIOAREN KONPARAZIOA	18
EZEZTAPENENGATIKO KONPENTSAZIOAK	19
LAN BALDINTZEK OKERTZEA	19
LAGUNTZAK	20
ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENA	22
ONDORIOAK	23
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	25

SARRERA

Txosten honen helburua Teknikariok Elkarte Sindikalak EAEko ikuskizun eta ekitaldien Langileei buruz egindako inkestatik ateratako datuak aurkeztea da.

Ikuskizunen eta ekitaldien sektorea hiru zutabe nagusik osatzen dute:

- ELKARTEAK
- ENPRESAK
- LANGILEAK:
 - Artistak: artisten eta toreatzaileen Gizarte Segurantzako araubide berezian jasotakoak.
 - Pertsonal Teknikoa: Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean jasota daude, akats baten ondoriozko salbuespen gutxi batzuk izan ezik.

Dosier honen lana teknikarien errealitatean oinarritzen da (ikuskizunetan eta ekitaldietan lan egiten duten eta artista edo sortzaile ez diren pertsonak), sektoreak lehendik zituen egiturazko berezitasunak eta Covid 19ren pandemiak eragindako osasun-krisiak lanbidean nola eragin duen erakusten saiatuz.

ARDATZ NAGUSIAK:

- Lanbidearen deskribapena: nola garatzen den jarduera profesionala
- Konparazioa: lanbidearen egoera Covid baino lehen eta orain
- Administrazioen diru-laguntzak
- Etorkizunerako aurreikuspena
- Ondorioak
- Soluzioak planteatzea

METODOLOGIA

Datuak erregistratutako erantzunetatik atera dira, gure galdetegiari erantzun dioten **166 pertsonaren laginean** oinarrituta. Uste dugu, honela errealitatearen argazki fidagarria bat lortu daitekeela.

Inkesta gure sare sozialen eta mailing-aren bidez egin da, Teknikariok-ek bere datu-basean jasota dituen kontaktuei zabalduz.


Beraz, erantzuleen profila euren diru-sarrerak ikuskizun eta ekitaldietan eskuratzen dituzten profesionalak dira.

PROFESIOAREN DESKRIBAPENA

GENEROAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA

Gure emaitzen arabera, sektore nagusiki maskulinoa da; genero-desoreka nabarmena identifikatu dugu.

1. GRAFIKOA
GENEROAREN ARABERAKO BEREIZKETA




Historikoki, gizonek garatu dute zuzeneko lana, eta oraindik ere oso gutxi dira sare horretan sartzen diren emakumeak. Honi amatasunaren “arazoa” gehitzen zaio, sektore honek ezartzen dituen lan erritmoak kontuan edukita, oso zaila baita biak uztartu ahal izatea.

KONKLSIOA

ADINAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA

Lan-ehunaren % 60k 40 urte baino gutxiago ditu; izan ere, zahartze duina ahalbidetzen ez duten lan-baldintza gogorren ondorioz, eta beraz, lanbidea uzteko joera goiztiarra izan ohi da.

Jarduera honen baitan jubilatzen diren langileak ez dira %8ra iristen.



Lanaren izaera prekarioaren ondorioz, zuzeneko ikuskizun eta ekitaldien berezko lanak egitea zailagoa da adin handiagoko pertsonentzat; batetik, lanak duen izaera fisikoagatik (ordu asko, lan fisikoa, etab.), eta kontziliazio-arazoengatik, bestetik. Beste sektore batzuekin bateragarriak ez diren ordutegiak edo jarduera-aldiak ditu sektore honek, eta orokorrean gainontzeko gizartearen aisialdi garaietan lan egiten da.

KONKLSIOA


JARDUERAREN BEHIN-BEHINEKOTASUNA

Sektore honek izaera tenporal handia du, lan-karga handiena urteko sasoi zehatzetan gertatzen baita: **udaberrian eta udan**.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, langileen % 50 baino gehiagok, batez ere, udan egiten du lan.

Neguan egiten den jarduera nagusiki langile propioz (kasu askotan funtzionarioak edo langile finkoak) hornitutako aretoetan/antzokietan egiten da, eta, beraz, horrelako ekitaldiak egiteak ez du eraginik, ez lan-sare nagusian, ez udaberri-udan, non egiturak eta ekipamenduak muntatzen diren eta langileen kontratazioa biderkatzen den.

3. GRAFIKOA
JARDUERA GEHIEN EGOTEN DEN URTAROA



2020. urtean, profesional askoren lan "denboraldia" galdu egin da. Urteko lehen hiruhilekoan oso jarduera gutxi izaten da, eta udaberrian jarduera hau orain dagoena baino maila handiagoan berraktibatzen ez bada, lan-sarea desintegratu egingo da diru-sarrera faltagatik.

KONKLUUSIOA


PROFESIOAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA

Ikusi dezakegu gehienbat **soinuan zein iluminazioan** espezializatutako pertsonak daudela, **erregiduria, karga/deskarga eta ekoizpen lanak** betetzen dituzten pertsonekin batera gehiengoa osatzen dute.

“Beste batzuk” atalean, diziplina anitzeko langileak sartzen dira, eta batez ere, zuzendaritza, soinua eta argiztapena eta lan administratiboa uztartzen dira.

4. GRAFIKOA

PROFESIOAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA



Gutxi dira ekitaldia egiten den egunetik eta honen muntaitik eta desmuntaketatik haratago jarraipena duten lanak egiten dituzten pertsonak.


KONKLUUSIOA

KONTRATAZIOAK ENPLEGATZAILE EDO BEZEROAREN ARABERA

Profesionalen $\frac{3}{4}$ k enpresentzat egiten du lan

Antzoki-aretoetan aritzen direnak 15,7% dira, era langile finko edo publikoak dira.

5. GRAFIKOA
KONTRATAZIO MOTA NAGUSIAK



ANTZOKIAK/ARETOAK

Instituzioek egindako "**berraktibazioa**" sare publikoko antzokietan gertatu da nagusiki (zeinetan enplegatu publikoak edo azpikontratatuak egon ohi diren), eta horregatik uste dugu instituzioek bultzatutako berraktibazioaren eragina langileen %15era baino ez dela iritsi, eta hauek dira justuki babes sozial handiena dutenak.

Oso zaila da datu hau egiaztatzea. Kontrol eraginkorra egiteko eta inbertsio publikoak lan-sarean duen benetako irismena ezagutzeko, jarduera bakoitzean parte hartzen duten langileen datuak jaso beharko lirateke.

Edukierari buruzko datuak jasotzeaz gain, **fitxa tekniko bat** erregistratu beharko litzateke, langileak eta hauen gastuetara bideratutako aurrekontu-zenbatekoa jasotzeko, baita kontratatze modua ere.

BANDAK/KONPAINIAK

Afiliazioak dioenez, **banda** eta **konpainia** askok beren ohiko teknikarien **zerbitzuak alde batera** utzi dituzte eta lan hauek antzoki eta aretoetako langile finkoen eskuetan utzi dituzte.

ENPRESAK


Langile finkoek, gehienak **bulego teknikoan** lan egiten zutenek eta ABEEEn zeudenek (ERTE), lehen beste langile batzuek egiten zuten lana egin dute, izan besteren konturako langileak zein autonomoak.

KONKLUSIOA

KONTRATAZIO ERREGIMENA

Oso deigarria da sektore honetan dauden **langile autonomoen ehuneko handia (%37)** datu hau estatuko lan-sare osoko autonomoen batez-bestekoarekin alderatzen badugu (%8 baino pixka bat handiagoa).


6. GRAFIKOA
KONTRATAZIO ERREGIMENA (OROKORRA/RETA)




BANAKETA:

- BESTEREN KONTURA %63
 - Finkoak %38,5
 - Obra eta zerbitzua: %53,8
 - Aldizkako finkoak: %7,7
- AUTONOMOAK %37:
 - %82,9 langilerik gabeko profesionalak
 - %5,8 sozietarioak
 - %5,8 TRADEak
 - %4,3 Ondasun erkidegoak

6B GRAFIKOA
ERREGIMEN OROKORRAREN BANAKETA



6C GRAFIKOA
RETA BANAKETA



Uste dugu beharrezkoa dela autonomoei eta enplegatzaileei datu hauen eta ondorioen gaineko kontzientzia piztea, batez ere fundazio eta itunpeko elkarteetatik datozen enplegatzaileak direnean. Enplegu subrogatuak praktika horiek errazten ditu, eta lehenbailehen aztertu eta ulertu behar dira.

KONKLUUSIOA

Sektoreko langileen %77,2k ez du inolako lan-egutegirik ziurtatua, ez epe luzera ezta epe laburrera ere. Honek sektorearen berezitasun oso zehatz batzuk islatzen ditu:

ZIURGABETASUNA

Kontratazioak telefono-deien, elkarriketen edo whatsappen bidez jasotzen dira, ez dira sinatzen, eta, beraz, ez dago erregistrorik administrazioentzat, ezta langileentzat ere.

Egutegia pertsonala eta **intuitiboa** da, aurreko urteetako esperientzietan oinarritua, eta lan horiek berriz kontratatzen ez badira, ez da inolako abisurik edo arrazoirik egon/jaso behar; hau da, profesional horiek legalki "itxita" ez dauden datak gordetzen dituzte, eta, beraz, ez dago estaldurarik zerbitzua ematen ez bada.

BEHIN-BEHINEKOTASUNA

Bai autonomoentzat, bai behin-behineko langileentzat, kategoria desberdinetan, lan ez-jarraituekiko mendekotasunaren ondorioz.

PREKARIETATEA

Diru-sarrerak ziurtatu gabeko lanen menpe daude, eta, kontratua sinatu eta egiaztatu gabe dagoenez, ezin da ezer justifikatu.

Gauza bera gertatzen da diru-sarreraren murrizketa justifikatzean, hau ekitaldi fiskalen (2019koa eta 2020koa, adibidez) konparazioaren arabera izaten baita. Kasuistika honek berekin dakar laguntzak eskuratzea ezinezkoa izatea, edo mutualitateek diru-sarrerak murriztea justifikatutzat emateko hasierako arazoa (azalpena [hemen](#)).

BESTEREN KONTURAKO KONTRATAZIOAREN DESKRIBAPENA


Langileei hainbat hitzarmenetan ematen zaie alta. Hurrengo grafikoan ikusi dezakegun bezala, **%40 metalaren hitzarmenaren barruan** dago, estaldura oso zabalak dituelako ikuskizun eta ekitaldietan erabiltzen diren ordutegi motetarako. Hala ere, ez dira metalaren hitzarmeneko berezko baldintzak betetzen, hala nola gaueko lana edo aparteko orduak kobratzea.

Soilik %8k du tokiko hitzarmena (Gipuzkoako ikuskizun- eta kirol-lokalen hitzarmena, gure jarduera behar bezala jasotzen ez duena eta 2012tik eguneratu gabe dagoena) edo beren jarduera garatzen duten antzokiaren hitzarmena.

%33,7k "beste hitzarmen batzuk" erantzun du, hau da, asko eta mota askotarikoak.

7. GRAFIKOA

ERREGIMEN OROKORREAN ALTA EMANDAKO LANGILEEI APLIKATUTAKO HITZARMENAK



Kulturako langileentzako laguntzak artistei eta enpresa-egiturei zuzenduta egon diren bitartean, neurri hauek "de facto" langileak kanpo uzten dituztela ikusi dezakegu, ia guztiak erregimen orokorrean alta emanda baitaude, ez artisten eta toreatzaileen erregimen berezian.

Langileen % 92k ez du beren jardueraren berezitasunak arautzen dituen hitzarmenik (Gipuzkoako hitzarmenak ere ez du arautzen, eta, beraz, gehiago izango lirateke). Aniztasun honek langileen erregularizazio falta eta kontratu-deriba egiaztatzen du, bai norberaren enplegu publikoan (funtzionarioak), bai besteren kontura lan egiten dutenen kasuan.

KONKLUUSIOA

2019 ETA 2020KO EGOEREN KONPARAZIOA

Ondorengo grafikoetan, diru-sarreraren, kontratazioen, lan-baldintzen eta abarren jaitziera aztertu ditugu, ehunekotan. Egoera orokorra horrela laburtu genezake: **langileen % 94k, ia langile guztiek, diru-sarreraren beherakada nabaritu dute aurreko urtearekin alderatuta.**


2019-2020KO JARDUERA PORTZENTAETAN

2019an, langileen % 4,3 baino ez zegoen langabezian (nolabaiteko laguntza edo sorospena kobratzen). Kopuru honek nabarmen egin du gora 2020an, eta langilearen % 50 baino gehiago kolpatu du.

%39 soilik itzuli da jarduerara:

- o Lanaldi osoan %12
- o Lanaldi murriztuan %5
- o obra eta zerbitzuetan %10,8
- o Autonomoak: %72,2 itzuli da jarduerara baina 2019an lortutako diru-sarrerak baino askoz irabazi txikiagoekin.

8. GRAFIKOA



Jarduerarik gabeko egoeran dauden pertsonen igoera dramatikoak, batez ere, hurrengoak eragin du:

KOIUNTURALKI:


Sektoreari aplikatutako neurri murriztaileak. Estatu osorako balio duen protokolo bateraturik gabe jarraitzen dugu, birus bera eta estatu bera izan arren, Osasun Sailak ikuskizun eta ekitaldiei lotutako agerraldi bat bakarrik identifikatu duen arren.

ESTRUKTURALKI:


- Lan-ehunak gizarte-segurantzaren estaldura falta izatea
- Erregulazio eza
- Lan-eskubideen eskasia
- Behin-behinekotasuna
- Aldizkakotasuna
- Sektorearen erresilientzia eza
- Familia eta lana uztartzeko arazoak, erregulazio eskasa dela eta

2019 ETA 2020KO DIRU-SARREREN JATORRIA

9. GRAFIKOA
2019KO DIRU-SARREREN JATORRIA




10. GRAFIKOA
2020KO DIRU-SARREREN JATORRIA, 2020KO MARTXOAN ALARMA EGOERA DEKLARATU ZENETIK



PANDEMIAREN ERAGINA BESTEREN KONTURAKO LANGILEEN DIRU-SARRERETAN

ABEE-N HARTZAILEEN DIRU-SARREREN JAITSIERA

11. GRAFIKOA
ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK ABEE-N HARTZAILE DIRENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA



ABEEek eragindakoen %60ren diru-sarrerak %25 eta %50 artean jaitsi dira.

ABEEek eragindakoen %30en diru-sarrerak %50 eta %75 artean jaitsi dira.

ABEEen 1098 euroko gehieneko muga kontuan edukita (PFEZ kendu gabe), aurreko ehunekoek ABEEek eragindakoen eguneroko bizi-aldaketaren gordintasuna erakusten dute.


KONKLUSIOA

LANGABEZIA EDO BESTELAKO LAGUNTZA JASOTZEN DUTENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA

Langabezia kobratu edo laguntza/sorospen motaren bat jasotzen dutenen erdiek baino gehiagok diru-sarreraren %50etik gorako beherakada izan dute.

12. GRAFIKOA

ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK LANGABEZIAN DAUDENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA




ADMINISTRAZIOEN ALDETIK DIRU-SARRERARIK, PRESTAZIORIK EDO LAGUNTZARIK JASOTZEN EZ DUTENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA

Erdiek baino gehiagok diru-sarreraren %75 eta %100 arteko beherakadak izan dituzte.

13. GRAFIKOA

ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK LAGUNTZARIK GABE DAUDENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA



Alarma-egoera deklaratu zen egunean alta emanda ez zeuden kultura-sektoreko langileak erakundeen babesik gabe geratu ziren, eta kotizatutako langabezia zutenek soilik kobratu ahal izan zuten zerbait.

Kontuan eduki behar da ikuskizunak eta ekitaldiak martxoaren 14a baino lehen geratu zirela bertan behera eta, beraz, "obra eta zerbitzuengatik" lan egiten dutenei lehenago eman zitzaizela baja, jarduerarik ez zegoelako..

Artisten kasuan, haien lanbidearen berezko intermitentzia "a posteriori" aitortu zitzaien, baina ez teknikariei. Altekin eta bajekin lan egiten duten teknikari profesionalak izan dira kaltetuenak sektorean.

KONKLUUSIOA


PANDEMIAREN ERAGINA NORBERAREN KONTURAKO LANGILEEN DIRU-SARRERETAN

LAGUNTZAK JASO DITUZTEN AUTONOMOEN DIRU-SARREREN JAITSIERA

- %39,1ari diru-sarreraren %50-%75 arteko jaitsiera
- %41,3ari diru-sarreraren %75-%99 arteko jaitsiera

14. GRAFIKOA

ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK SEKTOREKO AUTONOMOEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA



Honek erakusten du laguntza jaso arren, autonomoek jasan duten kalte ekonomiko larria. %80 dira 2019ko datuekin alderatuta, haien diru-sarrerak erdia baino gehiago jaitsi direla ikusi dutenak.

Laguntzak oso kopuru txikikoak izan dira: 660 €(600€ zergak kontuan edukita). 1.000€ko muga gaingitu duen laguntza bakarra Lanbidek kulturako profesionalentzat emandakoa izan da, eta 3 teknikariri bakarrik eman zaie.


Jarduera eteteko laguntza berdina izan da sektore guztietako autonomoentzat; eta arazoa da jardueraren susperraldia ez dela ahalbidetu eta, beraz, hain diru-sarrera txikiekin hilabete gehiagoz irautea oso zaila dela. Honek sektorearen zati handi bat pobretu du.

KONKLUSIOA

LAGUNTZARIK JASO EZ DUTEN AUTONOMOEN DIRU-SARREREN JAITSIERA

Alarma-egoera deklaratu zenetik laguntzarik jaso ez duten autonomoen %55,6k diru-sarreraren %75-%99 arteko beherakadak izan dituzte.

15. GRAFIKOA
ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK LAGUNTZARIK GABEKO SEKTOREKO AUTONOMOEN
DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA



*Diru-sarreraren beherakada hau benetan egon den susperraldiaren adierazle da:
ia ez da ezer fakturatu.*


KONKLUSIOA

2019-2020KO KONTRATAZIOAREN KONPARAZIOA

Kontratazioen 2020ko joera inbertitu egin da 2019ko datuekin alderatzen bada.

2019an, langileen %60k baino gehiagok 50 bolo baino gehiagotan egiten zuen lan; 2020an berriz, % 71k ez du 25 baino gehiagotan lan egin.

16. GRAFIKOA
2019-2020KO KONTRATAZIO MAILAREN KONPARAZIOA



2019an ez dugu "0-24 bolo" zerrenda sartu, kontratazioen maila hain baxua izanik ezin baita sektorean eskusiboki jardun, ez baita nahikoa bizirauteko behar den diru-sarrerera maila edukitzeko.

*Datu hauek kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu ustezko **suspertzeak ez diola langileriaren gehiengoari eragin**, eta ezinezkoa dela jarduera-maila horrek ematen dituen diru-sarrerekin mantentzea.*

*Gainera, ikuskizunen eta ekitaldien sektorean ezarritako salbuespenezko neurriak eta orain arteko berraktibazio mota mantentzen badira, **osasun-irizpideak bateratu gabe**, datu hauek okerrera egingo dutela aurreikusi daiteke, guztien kalterako.*

KONKLUSIOA

EZEZTAPENENGATIKO KONPENTSAZIOAK

la langileetako batek ere ez du inolako konpentsaziorik jaso ezeztapenengatik.

Kontratazio gehienak (besteren konturako langileei edo autonomoei egindakoak) ahozkoak dira, telefono bidezkoak eta, ondorioz, ezeztapenak ez dira kobratzen, eta enplegatzaileek ez dute zertan justifikaziorik eman; justifikatzen salbuesten dira, eta langileek ez dute inolako eskubiderik honen aurrean azalpenak eskatzeko.

LANGILEEN %85AK EZ DU EZEZTAPENENGATIK EZER KOBRATU


Martxoaz geroztik kobratu ez diren ezeztapen asko eta asko egon dira. Kasu askotan, langileek erreserbatutako datak bertan behera geratzen zirela sare sozialetako argitalpenengatik jakin izan dute, eta administrazio askok aurreikusitako ekitaldiak eta ikuskizunak kobratuko zirela ziurtatu arren, ez da hori gertatu, edo, behintzat, ez da lan-ehunera iritsi.

KONKLSIOA

LAN BALDINTZEN OKERTZEA

Langileen % 24k soldata jaitsierak izan dituzte, eta % 25ari lan-karga areagotu egin zaio, besteak beste haien lanarekin lotura zuzenik ez duten funtzioak bete behar izan dituztelako.

17. GRAFIKOA
2020KO LAN BALDINTZEN OKERTZEA 2019AREKIN ALDERATUTA



Nabarmendu beharreko lehen datua sektoreko langileriaren %25 inolako diru-sarrera zein laguntzarik gabe dagoela da.


AUTONOMOAK:

- Lanbideren laguntza: 3 PERTSONA.
- jarduera uzteagatik laguntza: 3 hilabeteko jarduera uztea 600 €-ko diru-sarrerekin; zenbateko hori ezin da egon den jarduera-galerarekin alderatu.
- Autonomoen % 2k soilik eutsi diote jarduera eteteko luzapenari:
 - Lehen luzapena lortzeko trabak: tarifa laua zuten autonomoak kanpoan geratu ziren.
 - Lehenengoan eta ondorengoetan sartu hartu ahal izan direnek, 2-3 kontratazioarekin onartutako fakturazio-muga gainditzen dute, eta horrek jasotako laguntza itzultzero behartzen du.


BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK:

- Sektore teknikoari zuzendutako 430€ko sorospena: inkesta honi erantzun dion inork ezin izan du jaso, lan egiten duten enpresak ez zeudelako sorospenean zehaztutako JESNen barruan.
- Enplegu-erregulazioko espedienteen osagarria: eskatzaileen % 33k lortu dute.

18. GRAFIKOA
JASOTAKO LAGUNTZAK



19. GRAFIKOA
EZEZTATUTAKO LAGUNTZAK




SEKTOREZ ALDATZEA PLANTEATZEN ARI ZARA?

Erdiak baino gehiagok, zehazki %56,6k, lanez aldatzea planteatu du.

Sektorearen erdiak baino gehiagok ez du uste 6 hilabete gehiago iraungo duenik denak horrela jarraitzen badu.


20. GRAFIKOA

SEKTOREZ ALDATZEA PLANTEATZEN ARI DIREN LANGILEEN PORTZENTAIA



21. GRAFIKOA

SEKTOREKO LANGILEEK BERTAN JARRAITU DEZAKETELA USTE DUTEN DENBORA TARTEA



Dosier hau sektorean errotuta dauden eta arautzeke dauden egiturazko arazoen isla da. Arazo hauek agerian geratu dira bizi dugun krisi-garaiaren ondorioz, eta sektore bateko lan-sarea desagerrarazteko mehatxua egiten dute, erreskate-neurri zehatz eta eraginkorrik ez dagoelako.

Sektoreko langileen pobretzea errealitate bat da: langile gehienek zailtasunak dituzte mantentzeko, eta datuek horixe erakusten dute.

Ordezkatzen dugun lan-ehunaren galera ekonomikoak larriak dira, eta egun martxan dagoen “berraktibazioak” langileak kanpoan uzten ditu (% 71k baino gehiagok 25 bolo baino gutxiago egin ditu 2020an). Grafikoetan azaldu dugun bezala, hau lan-jarduera hain gutxi izatearen arrazoietakoa bat da.

Hau oso larria da, berraktibazioa diru publikotik iristen ari baita, baina, hala ere, ez du eskatzen ezta exijitzen ere onuradun izan daitekeen lan-ehunaren egiaztapenik. Katxez baino ez du hitz egiten, eta ez dakar berekin inolako informazio erregistro baten beharrik , dirua eta berraktibazioa noraino iristen diren ikusteko. Sektore honetan, langileen heren batek soilik betetzen du bere lanbidea lanpostu finko baten segurtasunarekin, eta, beraz, estaldura sozialarekin. Lanbide bat dugu arriskuan. Egiaztatuta geratu da ikuskizunetan zein ekitaldietan beharrezko eskulana sostengatzen duten RETA-en kopuru deigarria, gure lan-ehunaren ia erdia, Estatuko gainerako sektoreetan batez bestekoa %8 den bitartean.

Obrarako eta zerbitzurako kontratatutakoak zein autonomoak dira prekarietatea kontratazio eta ezeztapenei haremenduta jasaten dutenak: hitzezkoa, telefono bidezkoa, whatsapp bidezkoa, aurretiko plangintzarik gabea, azken orduko zerbitzuak eskatzen dituzten bezeroak... Sektorea dinamika honen baitan mugitzen zen bai lehen eta baita gaur egun ere. Erakundeek ezeztapenengatik eman dituzten konpentsazioei dagokienez, ez da kontrolatzen noraino iristen den diru hori, enplegatzaileen arbitrariotasunaren araberrakoa da ezeztapenengatiko ordainsaria aurrez kontratatutako lan-ehunera iristea.

Aurrez deskribatutako kontratazio modu prekarioaren ondorioz, langile askok ezin izan dute ezeztapenak edo diru-sarreraren jaitsiera egiaztatzen duen dokumentaziorik aurkeztu, mutualitateei eta Lanbideri begira, adibidez.

Bestalde, berraktibatutakoek lan-karga handiagoa dutela eta lehen beste batzuek betetzen zituzten funtzioak betetzen dituztela aitortzen dute.

Grafikoetan erakusten den adinaren batez bestekoak eta behin-behinekotasunaren gorabehereri aurre egiteko esparru arautzaile baten erabateko gabeziak amildegira bultzatzen jarraitzen dituzte langileak, gizarte-babesari, erretiro-planari, “itinere”ari, langabeziari, aitatasun eta amatasun prestazioari, aitortutako lanbide-gaixotasun ezari, kotizazio-aldiei eta abarri dagokienez.

Lan-ehunak duen hitzarmen kolektiboen amalgama langileek bizi duten egoera normatibo txarraren erakusle da.

Behin-behinekotasunak ere kalteak eragin ditu. Udan lana ia hirukoiztu egiten da baina neguan beherakada handia dago, eta horrek zailtasun gehigarriak eragin ditu RETA-en kasuan lana uzteagatik diru-sarreraren %75eko galerak egiaztatzeko orduan, eta hori sakon aztertu beharko litzatekeen zerbait da.

Besteren konturako behin-behineko langileen kasuan, araudirik ezak eta langileen (Artisten Erregimenean kotizatzen ez dutenak) behin-behinekotasunak sortzen dituen berezitasunak behar bezala estaltzen dituen lege-esparrurik ezak azalduko luke, besteak beste, laguntzarik eta diru-sarrerarik gabeko aldi baterako langileen hain kopuru handia.

Etorkizunerako aukera beste sektore batzuetarantz migratzea da, gaur egun jada gertatzen ari den zerbait. Lan-ehunaren erdiak baino gehiagok aurreikusten du ezingo duela modu honetan sei hilabete baino gehiago jarraitu; beraz, egoerak horrela jarraituz gero, %75ek sektorea urtebetean utziko du.

Laburbilduz, egoera hau erakundeek laguntzarekin soilik arindu daiteke; izan dugun ahanzturak muturreko egoerara garamatza, eta utzikeria hori administrazioaren beraren printzipioen aurkakoa da. Bide berri bati ekin behar diogu, eta gure lanbidearen zeharkakotasunak eta bizi duen errealitate kritikoak **sektore arteko mahai bat sortzea** eskatzen dute, hiru ardatz nagusiren inguruko estrategiak lantzeko:

- Langileentzako zuzeneko laguntzak biziraun ahal izateko.
- Jarduera suspertzea, inbertsioa profesionalengana iristen dela bermatzen duten baldintzekin.
- Lan-sarea berregituratzea: lan-baldintza duinak eta bidezkoak sortuko dituzten arau-esparruak sortzea; bide berri bati ekiteko momentua da.

Honako sail hauen parte hartzea iradokitzen dugu:

- **Lana eta Enplegua:** erregulazio-arazo asko sortzen direlako
- **Ekonomia eta Ogasuna:** pertsona fisiko eta juridikoen fiskalitateari ekiteko.
- **Ekonomiaren Garapena, Iraunkortasuna eta Ingurumena:** sektore ugariak parte hartzen dutenez (azokak, kongresuak, kultura, turismoa, eraikuntza), etorkizuneko ikuspegia emateko eta Europako funtsak benetan sortutako BPGren mailan bideratzeko, zeharkakotasuna kontuan hartuta, orain sakabanatuta baitago.
- **Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak:** Gizarte Gaien esku-hartzea beharrezkoa egiten ari da, profesional batzuk pobreziaren atalasetik beherako diru-sarrerekin bizi direlako.
- **Osasuna:** osasun-protokoloak bateratzea toki-, probintzia- eta autonomia-erkidego-mailan.
- **Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa:** aretoetako, biltzarretako, azoketako eta ekitaldietako langileak ere bagara.
- **Kultura eta Hizkuntza Politika:** gure lan-iturri nagusietako bat da.
- Sektorearteko mahai honetan **egon nahi eta behar duten elkarte eta sindikatuak**.
- **Legebiltzarreko arku politikoa**: interesa duten alderdi politiko guztietako ordezkariak.

Sektore arteko mahai horren helburuak argia izan behar luke: irtenbidea eta konponbidea ematea bai dossier honetan deskribatutako arazoei, bai parte-hartzaileek mahai gainean planteatuko dituztenei, modu honetan guztiek jarraitu beharreko tokiko, probintziako, autonomia-erkidegoko eta estatuko bideak bideratzeko eta kudeatzen hasteko. Benetako zentzua eman behar zaio diruz ordaindutako publizitate-karteletan bakarrik agertzen den hitz eta ideia garrantzitsu horri:

AUZOLANA

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

GRÁFICO 1	GENEROAREN ARABERAKO BEREIZKETA	3
GRÁFICO 2	SEKTOREKO LANGILEEN BATEZ-BESTEKO ADINA	4
GRÁFICO 3	JARDUERA GEHIEN EGOTEN DEN URTAROA	5
GRÁFICO 4	PROFESIOAREN ARABERAKO SEGMENTAZIOA	6
GRÁFICO 5	KONTRATAZIO MOTA NAGUSIAK	7
GRÁFICO 6	KONTRATAZIO ERREGIMENA (OROKORRA/RETA)	8
GRÁFICO 7	ERREGIMEN OROKORREAN ALTA EMANDAKO LANGILEEI APLIKATUTAKO HITZARMENAK	11
GRÁFICO 8	2019-2020KO JARDUERAREN KONPARAZIOA	12
GRÁFICO 9	2019KO DIRU-SARREREN JATORRIA	13
GRÁFICO 10	DIRU-SARREREN JATORRIA, 2020KO MARTXOAN ALARMA EGOERA DEKLARATU ZENETIK	13
GRÁFICO 11	ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK ABEE-N HARTZAILE DIRENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA	14
GRÁFICO 12	ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK LANGABEZIAN DAUDENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA ⁹	15
GRÁFICO 13	ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK LAGUNTZARIK GABE DAUDENEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA	15
GRÁFICO 14	ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK SEKTOREKO AUTONOMOEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA	16
GRÁFICO 15	ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOTIK LAGUNTZARIK GABEKO SEKTOREKO AUTONOMOEN DIRU-SARREREN JAITSIERA, 2019AREKIN ALDERATUTA	17

GRÁFICO 16	2019-2020KO KONTRATAZIO MAILAREN KONPARAZIOA	18
GRÁFICO 17	2020KO LAN BALDINTZEN OKERTZEA 2019AREKIN ALDERATUTA	19
GRÁFICO 18	JASOTAKO LAGUNTZAK	20
GRÁFICO 19	EZEZTATUTAKO LAGUNTZAK	21
GRÁFICO 20	SEKTOREZ ALDATZEA PLANTEATZEN ARI DIREN LANGILEEN PORTZENTAIA	22
GRÁFICO 21	SEKTOREKO LANGILEEK BERTAN MANTENDU DAITEZKEELA USTE DUTEN DENBORA TARTEA	22

NO
SHOW